



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko urriaren 8a

97. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Jagoletza Partekatuari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (17. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Noain-Iruña Aireportuko instalazioetako erro-tuluak euskaraz eta gaztelaniaz jar ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da San Frantzisko Xabierkoa zentro psiko-geriatrikoko Oroimenaren Unitatea deszentraliza dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da bere gain har ditzan guztiz Petö Metodoaren bidezko tratamenduen kostuak. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estellerriko eremu ureztagarri berriari buruzko proiektuaren gaineko kontsulta egin dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Santa Crizko proiektu arkeologikoaren jarraitasuna ziurta dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Legebiltzarrean foru lege proiektu bat aurkez dezan Nafarroako Langile Publikoaren Estatutua arautzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (23. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, azterketa medikoak espezialistek ezarritako epeak betez egin daitezzen hartu beharreko neurriei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (25. or.).

- Galdera, "Musikaren Plan Zuzendaria. Nafarroako taldeek Nafarroako kultur etxeetan duten presentzia" kontusailari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egin (25. or.).
- Galdera, Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiaren kostuei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egin (26. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 5/2010 Legegintzako Foru Dekretua, irailaren 20koa, tributu harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (27. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori 2010eko apirilaren 13ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak 2010eko irailaren 29an eta urriaren 1ean eginekiko bileretan onetsia.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa.

ZIOEN AZALPENA

Parlamentuaren Osoko Bilkurak 2007ko martxoaren 16an onetsi zuen Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legea, zeina Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 zenbakiarekin argitaratu baitzen apirilaren 2ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Foru Legeak bilaturiko helburuetako bat zen Nafarroako polizia-kidegoen estatutu berezia arautzea. Hala esaten da IV. tituluan.

Izan ere, Foru Legeak jasotzen zuen enpleguen izenak aldatzea, hautaketa-printzipioak sinplifikatzea, karrera profesional berri bat moldatzea eta, era berean, "bigarren jarduera" deritzon administrazio-egoera berria xehetasunez garatzea.

Halaber, diziplina-araubidea berridazten zen, une horretan metatuta zegoen esperientziaren arabera.

Alabaina, Foru Legeak indarrean daraman bi urte baino gehiagoko epe honetan, metaturiko esperientziak erakusten duena da arauak horren zenbait alderdi aldatu eta zehaztu beharra, bai eta beste batzuk garatu beharra.

Aldaketa honen bidez lortu nahi da zenbait alderdiren arauketa finkatzea, era horretan lortu ahal izateko herritarren beharrezko erantzun integrala eskainiko dien polizia-eredu bat, hurbileko polizia bat, zeinak garbi izanen baitu zerbitzu publiko gisa duen izaera, bai eta gizartearen zerbitzuan diharduen bitartekoa izateko zeregin iraunkorra daukala.

Beharrezkoa da herritarren segurtasunaren alorrean Nafarroako gizarteari eman behar zaion erantzun poliziala planifikatzea, delituaren prebentzioaren, zerbitzuaren hurbiltasunaren eta herritarrekiko zerbitzuaren ekitatearen ikuspegitik. Horretarako, ezinbestekoa da, halaber, lan-taldearen espezializazioan aurrerapausoak ematea, halako moldez non erantzuna integrala eta espezializatua izan ahal izan dadin, Nafarroako polizien artean behar bezalako koordinazioari eutsiz.

Foru lege proposamen honen asmoa da, orobat, aurrerapausoak ematea gure Foru Komunitatean Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoen eta Nafarroako polizien artean dagoen osagarritasuneari, lankidetzan eta elkarlanean, betiere ardatz gisa harturik leialtasun instituzionala eta elkarrekin begirunea.

Artikulu bakarra. Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea honela aldatzen da:

Bat. Honela idatzita agertuko da 6. artikuluko 3. idatz-zatia:

“3. Kidego bakoitzean, oro har, gehienez ere egonen dira:

- a) Komisario nagusi bat ehun kideko.
- b) Komisario bat berrogeita hamar kideko edo hogeita bost kidetik gorako hondarreko.
- c) Inspektore bat hogeita hamar kideko edo hamabost kidetik gorako hondarreko.
- d) Inspektoreorde bat hogei kideko edo hamar kidetik gorako hondarreko.
- e) Kabo bat lau eta zazpi kideren bitarteko talde bakoitzeko edo horren hondarreko, administrazio bakoitzak finkatzen duen bezala.

Nafarroako Gobernuak, foru dekretu baten bidez, zifra horiek aldatzeko ahalmena izanen du, giza baliabideak hobeki antolatzeko. Tokiko polizia dagokienez, kasuko toki entitateak eskatu ahalko du aldaketa, betiere Nafarroako Tokiko Poliziak Koordinatzeko Batzordeak adostasun txostena eman ondoren.

Dimentsio horiek Nafarroako polizia kidegoen antolamenduaren eta espezializazioaren garapeneraren arabera eta aurrekontuan dagoen diruaren arabera zehaztuko dira, kasuan kasuko antolamendu erregelamenduan ezarritakoaren arabera.”

Bat bis. I. tituluar III. kapitulu berri bat erantsiko zaio, honako testuarekin:

“III. kapitulu
Nafarroako Polizien Kontseilua

6 bis. artikulua. izaera eta eginkizunak.

1. Nafarroako Polizien Kontseilua sortzen da. Kide anitzeko organoa izanen da, Nafarroako segurtasun publikoaren sistemaren barruan egonen da, eta kontsulta egiteko eta aholku ematekoa izanen da.

Nafarroako Polizien Kontseiluak nahitaez hartuko du parte izaera orokorreko arauak taxutzeko prozeduretan, baina ez da loteslea izanen eta alderdi tekniko eta profesionaletara mugatuko da.

Nafarroako Polizien Kontseiluak aholkua behar duen entitateak eskatuta nahiz Kontseiluak berak proposatuta –halakoetan, ukitutako entitateak onartu egin beharko du hark aholku ematea– emanen du aholku.

2. Hauek dira Nafarroako Polizien Kontseiluen eginkizunak:

a) Nafarroako Polizia Kidegoetako entitate titularrei aholku ematea arlo tekniko eta polizialari eta polizia-zerbitzua hobetzeari dagokienez.

b) Aholku ematea polizia-zerbitzua kudeatzeko formula berriei buruz eta polizia-zerbitzuaren baldintza teknikoak eta antolamenduzkoak ezartzeari buruz.

c) Aholku ematea arlo polizialean Nafarroako segurtasun publikoaren sistema garatzeari buruz.

d) Aholku ematea polizia-prestakuntzaren arloan.

e) Nafarroako administrazio publikoei lankidetzara polizialari buruzko formulak proposatzea.

f) Txostena egin eta iritzia azaltze aldera ematen zaizkion arau-proiektuak ebaluatzea.

g) Lanbidearen estatutuari buruzko galderak bideratzea.

h) Nafarroako poliziek emandako zerbitzua hobetzen lagun dezakeen beste edozein.

i) Legeek eta xedapen orokorrek esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak.

3. Nafarroako Polizien Kontseiluaren txostena jasota, kontseilari eskudunak kontseiluaren funtzionamendu eta antolamendurako erregelamendua onetsiko du.

6 ter. artikulua. Kideak eta funtzionamendua.

1. Nafarroako Polizien Kontseiluak Nafarroako administrazio publikoen zortzi ordezkari izanen ditu, segurtasun arloko kontseilari eskudunak izendatuak –horien artean kontseilaria bera edo horren eskuordetza hartzen duen agintaria- eta Nafarroako polizia kidegoen beste zortzi ordezkari.

Nafarroako administrazio publikoen ordezkari horietarik lau Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioakoak izanen dira, eta gainontzeko lauak toki entitateetakoak, bat Iruñeko Udalekoa eta gainontzeko hiruak polizia kidegoa duten Nafarroako toki entitateetakoak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposatuta.

Nafarroako polizia kidegoen ordezkari horietarik lau Foruzaingoak izanen dira, foruzainen buruak proposatuta, eta gainontzeko lauak tokiko polizietakoak, bat Iruñeko Udaltzaingoa eta gainontzeko hiruak beste tokiko polizietakoak, Tokiko Poliziak Koordinatzeko Batzordeak proposatuta.

2. Nafarroako Polizien Kontseiluko idazkari lana Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionario batek eginen du, zuzenbideko lizentziatu titulua izan beharko duenak. Hizpidea izanen du, baina botorik ez.

3. Kontseilua, gutxienez ere, urtean behin eta kontseilukideen heren batek, gutxienez ere, eskatzen dutenean bilduko da.”

Bi. II. titulua, II. kapitulua, Nafarroako Foruzaingoaren Kontseilua, kendu egingen da eta, beraz, ez du edukirik izanen.

Bi bis. 17. artikuluko 1. eta 4. idatz-zatiak aldatzen dira eta 5. eta 6. idatz-zatiak gehitzen dira. Hona testuak:

“1. Bost mila bizilagun eskubidedun edo gehiago dituzten Nafarroako udalek beren tokiko polizia sortuko dituzte.

4. Toki entitateek Nafarroako Gobernuarekin hitzartzen ahalko dute tokiko poliziaren zerbitzua Foruzaingoak eman dezala. Edozein modutan, toki entitatea izanen da zerbitzua finantzatu duena.

Sinatzen den hitzarmenak honakoak jasoko ditu, besteak beste: indarraldia, atxikitako baliabide pertsonalen eta materialen identifikazioa, zer arau, baldintza eta antolamendu izanen dituen zerbitzuak, finantzaketa eta likidazioa.

Zerbitzu hori ematera atxikitako Foruzaingo funtzionarioek beren mendekotasun organikoarekin jarraituko dute, bai eta beren jatorrizko betebeharrak eta eskubideekin.

5. Tokiko polizia kidegoa duten toki entitateek Nafarroako Gobernuarekin hitzartu ahalko dute tokiko poliziako kideak foruzain bilakatzea, eta Foruzaingoak hartzea bere gain polizia zerbitzua.

Tokiko funtzionario horiek eskubide eta betebeharrak guztiekin bilakatuko dira foruzain. Aurretik, foruzain bilakatu behar ote duten erabakitzeko, probak eta gaitzeko ikastaroak jarriko zaizkie Nafarroako Segurtasun Eskolan.

Tokiko funtzionarioak Foruzaingoan sartze hori toki entitateak finantzatu du; halakoetan, sinatu beharreko hitzarmenean zehaztuko da zer baldintzatan berrikusi eta likidatu diren betebeharrak ekonomikoak.

6. Tokiko poliziaren kidegoa bakarria izanen da toki entitate bakoitzean, eta “tokiko polizia” deituko zaio, salbu eta ohituraz “udaltzaingoa” izendapena erabiltzen den kasuetan; horrelakoetan, izan ere, ohiturazko izenari eutsi ahalko zaio.

Hiru. Honela idatzita agertuko da 29. artikuluko 1. idatz-zatia:

“1. Hautaprobak objektiboak izanen dira, eta izangaiak aurretiaz ezagutuko dituzte ebaluazioko parametro teoriko eta praktikoak. Hautaprobetan sartuko dira, gutxienez ere, egoera fisikoari buruzko probak, eskatutako maila akademikoaren

araberako ezagutza-probak eta proba psikoteknikoak. Ekipo berak egingen dizkie proba psikoteknikoak izangai guztiei, eta halako moduan egingen dira non diskrezioa ziurtatuko den eta, hortaz, ekipo ebaluatzaileak ez dituen ezagutuko gainontzeko proben emaitzak.”

Hiru bis. 29. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“2. Hautaprobaren artean, betiere, prestakuntza ikastaro bat egonen da, Nafarroako Segurtasun Eskolak emana. Ikastarorako dei bakarria egin ahalko da; hala bada, izangaiak behin bakarrik hautatuko dute, eta ikastaroa hasi aurretik.

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionario bihurtzeko nahitaezko betebeharrak izanen da ikastaro hori gainditzea.”

Lau. 30. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra aldatzen da. Hona testua:

“b) Adinez nagusia izatea eta 30 urte baino gehiagoko adinik ez izatea.”

Lau bis. 30.1.c) artikuluko bigarren lerrokada kendu da.

Lau ter. 31. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da. Hona testu berria:

“Nafarroako Polizia Kidegoetako lanpostuak eskuratzeko eskatuko den titulazioa 42. artikuluko ezarritako maila dagokiena da.”

Bost. (KENDUTA).

Sei. (KENDUTA).

Zazpi. Honela idatzita agertuko da 39. artikulua:

“39 artikulua. Lanpostuak eskuratzeko prozedura.

1. Lanpostuak eskuratzeko foru lege honetan jasotako prozedurek, gutxienez ere, honakoak baloratuko dituzte: administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, polizia-eginkizunarekin zerikusia duten prestakuntza-, irakaskuntza- eta ikerkuntza-jarduerak, hizkuntzak jakitea eta betetako lanpostuak baldin eta erregelamenduz horren balorazio objektiboa egiteko prozedura ezarri bada.

2. Oposizio-lehiaketa prozeduretako oposizio faseak, gutxienez, eskatzen den maila akademikoari egokitutako eta bete nahi den lanpostuarekin bat datozen ariketa praktikoak eta ezagutzakoak izanen ditu, eta ariketa psikoteknikoak, izangaiak lanpostuaren profil profesioerakoari zenbateraino egokitzen zaizkion neurtzeko.

3. Kategoria-igoeraren lehiaketako prozedurek, 1. idatz-zatian ezarritakoaz gain, lortu nahi den lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruzko proba praktiko baztertzaila bat izanen dute, gutxienez. Era berean, proba psikoteknikoak ere izan ditzakete, izangaiak lanpostuaren profil profesio-grafikoari zenbateraino egokitzen zaizkion neurtzeko.

4. Foru lege honetan lanpostuak eskuratzeko prozedura guztietan izanen da eskuratu nahi den lanposturako gaitasun-ikastaro bat gaingitu beharra, Nafarroako Segurtasun Eskolak emana.

5. Lanpostuetara sartzeko hautaprobak objektiboak izanen dira, teorikoak edo/eta praktikoak, eta izangaiak aurretiaz ezagutuko dituzte ebaluaziorako parametroak.

6. Aurreko idatz-zatietan jasotako xedapenak erregelamenduz garatuko dira Nafarroako polizia kidegoetako lanpostu bakoitzerako”.

Zazpi bis. 41. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da, eta hauxe izanen da testu berria:

“1. Nafarroako polizia kidegoetako polizia, inspektore edo komisario kategorietan sartzeko Nafarroako Segurtasun Eskolak ematen duen prestakuntza ikastaroa egitera onartzen diren izangaiak, ikastaroa egin bitartean eta, gaingituz gero, administrazioak behin betiko lanpostuaren jabetza hartzeko finkatzen duen egunera arte, prestakuntza ikastaroaren hasieran hautatu duen administrazio-ko praktiketako funtzionarioak izanen dira, non eta jadanik ez diren Nafarroako polizia kidego bateko funtzionarioak. Erregelamendu bidez egoera horri dagozkion baldintza, eskubide eta betebeharrak arautuko dira.”

Zortzi. 43. artikulua aldatu da eta honela idatzita agertuko da:

“43. artikulua. Nafarroako polizien prestakuntza.

1. Nafarroako polizia kidegoetako kideen prestakuntzak eta hobekuntzak Nafarroako poliziei buruzko prestakuntza planean ezarritako aurreikuspena beteko dute, eta 4. artikuluan adierazitako printzipioei egokituko zaizkie. Halaber, honako irizpideak bete beharko dute:

a) Profesionala eta etengabea izanen da.

b) Administrazio publikoen menpeko ikastetxetan egiten diren ikasketak Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak baliozkotu ahalko ditu. Ministerioak, horretarako, kontuan hartuko ditu ikasketa horietako bakoitzera sartzeko eskatutako titulazioak eta ikasketen iraupena.

c) Aipatutako irakaskuntzak eta ikastaroak emateko, erakundeen arteko lankidetzaz sustatuko da unibertsitatearekin, botere judizialarekin, Ministerio Fiskalarekin, indar armatuekin eta aipatutako ikastetxeei berariaz interesatzen zaizkien bestelako erakunde, zentro edo establezimenduekin.

2. Nagusiki, Nafarroako Segurtasun Eskolak prestatuko ditu, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpe baitago, Nafarroako polizia kidegoetako kideak, udal agenteak eta udaltzain laguntzaileak, eta, era berean, horiek hautatzeko prozesuetan ere parte hartuko du. Artikulu honetako 1. idatz-zatiko c) letran aipatzen diren gainerako zentro edo establezimenduek ere prestakuntza hori eman ahalko dute eta hautapen-prozesuetan parte hartu ahalko dute.

3. Erregelamenduz ezarriko da zein izanen den aurreko idatz-zatian aipatutako langileen prestakuntza-araubidea, eta, bereziki, horiek izanen dituzten eskubideak eta betebeharrak; arau horiek, betiere, oinarri izanen dituzte objektibotasunaren printzipioa, gardentasunarena, aukera berdintasunarena, espezialitatearena eta publikotasunarena.

4. Nafarroako Segurtasun Eskolaren eginkizunen artean eginkizun berberak edo antzekoak dituzten erakunde publikoek emandako ikastaro eta diplomak osorik edo partez baliozkotzea izanen da, baita eskolak berak lehenago emandakoak ere, betiere edukiak berdinak badira. Horrelakotan, behar den puntuazioa esleituko zaio tituluari. Halaber, artikulu honetako 1. idatz-zatiko b) letran aipatzen diren baliozkotze-eskabideak bideratzeaz arduratuko da.

Era berean, Segurtasun Eskolak informazioa ematen ahal du, hautapen- eta kontratazio-organo publikoek hala eskatuta, Nafarroako polizia kidegoetan sartzeko edo gora egiteko prozeduretan izangai direnek aurkeztutako prestakuntza-ekin-tzen balorazioari eta baliokidetasunari buruz; horretarako, kontuan hartuko ditu prestakuntza-ekin-tzen eduki-baliokidetzaz, horietan lortutako puntuazioa, ekintza horien iraupena eta modalitatea, bai eta ikasgaien gaurkotasuna ere”.

Bederatzi. 44. artikuluko 3. idatz-zatia aldatu da, eta honela idatzita agertuko da:

“3. Nafarroako polizia kidegoetako kideek partaide diren Administrazio-ko merezimenduen lehiaketetan eta lanpostuen leku-aldatzeetan parte hartu ahalko dute, kidegoaren barruko zerbitzuan 15 urte eman badituzte edo 50 urte baino gehiago badituzte, eta polizia izateari utziko diote lanpostu berriaren jabetza hartzen duten unean berean.”

Hamar. Honela idatzita agertuko da 45. artikulua:

“45. artikulua. Destinoen banaketa.

1. Polizia kidegoen barruko destinoak betetzeko, merezimendu eta gaitasun printzipioak hartuko dira kontuan. Honakoak izanen dira sartzeko modalitateak: lehiaketa, zeina sistema arrunta baita, berariazko lehiaketa eta izendapen askea.

2. Berariazko lehiaketa erabili ahalko da erantzukizun edo prestakuntza bereziak eskatzen diren lanpostuak betetzeko. Sistema horren bitartez sartzeko ezartzen diren hautaprobek objektiboak izan beharko dute, eta izangaiek, aurretik ebaluatuko diren parametroak ezaugarri beharko dituzte.

3. Erregelamendu bidez ezarriko da zer zuzendaritza lanpostu bete ahalko diren izendapen askeko sistemaren bitartez. Zuzendaritzakoak ez diren izendapen askeko lanpostuak behar bezala arrazoituak eta justifikatuak egon beharko dute.

4. Izendapen askeko sistemaren bitartez zuzendaritza lanpostuak betetzeko izendatutako funtzionarioak, izendatu zituen organoak libreki kendu ahalko ditu dauden lanpostuetatik. Hala egin ez gero, zuzendaritza-karguari dagozkion osagarriak jasotzetik gelditu eta berehala jatorrian atxikita zeuden lanpostura itzuli beharko dute.

5. Plantilla organikoetan, polizia kidegoetako lanpostuak aipatuko dira, eta haietan ezarriko dira lanpostuak, behar bezala sailkaturik. Soilik honakoak aipatuko dira berariaz:

- a) Lanpostu bakoitza zein mailari atxikita dagoen.
- b) Lanpostuaren zenbakia eta izena.
- c) Zein unitate organikoren menpean dagoen.
- d) Zein egoitzatan edo herritan dagoen.
- e) Zein enplegu edo kategoriatakoentzat erreserbatuta dagoen.
- f) Artikulu honetako 1. idatz-zatian aipaturiko lanpostuak betetzeko sistema.
- g) Lansari osagarriak.
- h) Bigarren jarduerako lanpostuak.
- i) Sartzeko moduak eta bertan jarraitzeko baldintzak.”

Hamaika. 47. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak aldatu dira eta honela idatzita agertuko dira:

“1. Hauxe da bigarren jardueraren helburua: Nafarroako polizia kidegoetan jardunean dauden langileen eraginkortasuna bermatzea eta lanbide

karrera denboraren joanean edo gaitasun fisikoak edo psikikoak ustekabeen murriztean gertatzen diren aldaketetara egokitzea. Bigarren jardueraren egoera administratiboa destinoduna izanen da.

2. Adin batera iritsita (betiere, berrogeita hamabost urtetik gora), edo gaitasun fisikoak edo psikikoak murrizten diren kasuetan, Nafarroako polizia kidegoetako kideek bigarren jardueraren egoera administratibora pasatu ahalko dira eta, erretiroaren adinera iritsi aurretik, interesdunak eskatuta nahiz ofizioz, gaitasun fisikoak nahiz psikikoak gutxiz gero, bigarren jarduerako zerbitzuetan eman ahalko zaie destinoa:

a) Dagokien kidegoan bertan.

b) Nafarroako beste polizia batzuetan, betiere bi administrazioek bidezko lankidetzaren hitzarmena sinatu badute.

c) Administrazio bereko beste lanpostu batean, prestakuntzarekin, segurtasun arloko nahiz beste arlo batzuetako politikekin, polizia administratiboko jarduerekin (adierarik zabalenean) zerikusi zuzena duena, administrazio horren eskumenen esparruan, konparazio batera zehapen espedienteen tramitazioetan laguntzea, lan administratibo edo exekutiboak, zaintza, kontrola, ikuskapenak eta bestelakoak, betiere langilearen mailarentzat eta jakintzarentzat egokiak badira eta ahalegin fisiko, arrisku edo zailtasun gutxiagokoak badira.”

3. (KENDUTA).

4. (KENDUTA).

5. (KENDUTA).

6. (KENDUTA).

7. (KENDUTA).

Hamabi. Honela idatzita agertuko da 49. artikulua:

“49 artikulua. Araubide orokorra eta espezialitateak.

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen eskubide eta eginbeharrak Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuari buruzko arauetan ezarritakoak izanen dira, foru lege honen ondoriozko berezitasunekin, hauekin bereziki:

a) Zin egitea edo hitz ematea Konstituzioari, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoari eta legeei men egiten diela.

b) Foru lege honen 4. artikuluan ezarritako oinarriko jarduketa printzipioen ondoriozko egin-kizunak bete beharko dituzte eta 2/1986 Lege

Organikoko 6. artikuluan aitortutako eskubideez gozatuko dute.

c) Beren interesak defendatze aldera, sindikatuetan afiliatzeko eskubidea izanen dute eta, orobat, sindikatuetatik atera eta beste erakunde batzuk sortzeko, betiere askatasun sindikalari buruzko legediak ezarritako baldintzak betez gero, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoentzat ezarritako moduan.

d) Grebarako eskubidea Segurtasun Indar eta Kidegoentzat eskubide horren gainean ezarrita dauden xedapenen arabera erabiliko da.

e) Lanaldia eta oporrak eta baimenak hartzeko berariazko modua erregelamendu bidez xedatuko dira, polizia-eginkizunaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta. Hartara, urte naturala hasi aurretik lan-egutegiak ezarri ahalko dira; haien arabera, lanaldia eguneko edo gaueko txandatan izan ahalko da, eta guardia lokalizatuak nahiz bertan egoteak ezarri ahalko dira, bai eta jai-egunetan lan egin behar izatea ere. Betiere, kontuan hartuta polizia-eginkizunaren ezaugarriak bereziak direla eta oinarrizko zerbitzu publiko hori berehala eman beharra eska daitekeela eta, zerbitzuaren izaerari erreparatuta, ez dagoela langileak aldi baterako ordezkapenak egiteko edo zerbitzua indartzeko sistemak baliatzerik, lan-egutegi horiek muga izanen dute segurtasun publikoa, larrialdiak artatzea eta babes zibila, eta edozein unetan aldatu ahalko dira, polizia-zerbitzua ematen dela ziurtatzeko.

f) Bidezko ordainsaria jasotzeko eskubidea izanen dute; hartan, honakoak hartuk dira kontuan: prestakuntza-maila, bateraezintasunen araubidea, zerbitzu-arrazoiengatik eta egitekoen dedikazio eta arriskuarengatik mugikortasuna, eta lan-ordutegien eta haien egituratze bereziaren berariazko-tasuna. Ordainsarien kontzeptuak eta zenbatekoak hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaizkio.

g) Beren eginkizunetan egindakoengatik erantzukizuna eskatzen zaien auzi guztietan, atxikita duen administrazio publikoko profesionalek laguntza emateko, ordezkatzeko eta aldezteko eskubidea izanen dute, Administrazioaren kontura, baldin eta Polizia Kidegoaren Buruzagitzak, hasiera batean, foru lege honetako 4. artikuluan jasotzen diren jardunaren oinarrizko printzipioen arabera direla uste badu.

h) Polizia izatearekin lotutako kalte pertsonal edo materialak jasanez gero, erregelamenduz ezarritako den kalte-ordainen sistemaren onuradun izateko eskubidea izanen dute.

i) (KENDUTA).

j) Nafarroako polizia kidegoetako kideek eskubidea dute urtean azterketa mediko bat egin dakien.

k) Eskubidea izanen dute haiek hautatutako legelari batek lagun diezaien, haien kargura betiere, haiek ukitzen dituzten diziplina-espediente edo aurretiazko informazio guztiak garatzen direnean.

l) Polizia-funtzionarioaren ezinbesteko betebeharra da eginkizun polizialak eskatzen duen prestakuntza fisiko bereziari eustea –prestakuntza horrek, betiere, adinaren arabera behar bezala egokitua beharko du–, eta, beraz, ez da horren ordain ekonomikorik emanen, ezta denbora-ordainik ere.

Erregelamenduz ezarritako da polizia-funtzionarioek nahitaez gainditu beharreko proba fisikoak zer-nolakoak izanen diren eta zenbatean behin egingen diren; proba horiek ez badira gainditzen, % 10 murriztuko da kasuko lanposturako modu orokorrean ezarritako osagarri espezifikoak.

Aurrekoa gorabehera, zenbait unitaterentzat, plantilla organikoan hala ezarrita ageri denean, proba fisiko bereziak ezarri ahalko dira postuan jarraitzeko baldintza modura”

Hamahiru. Honela idatzita agertuko da 50. artikulua:

“50. artikulua. Lansariak.

1. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioek ondoko kontzeptu hauei dagozkien ordainsariak jasoko dituzte, ez besterik:

A) Norberaren oinarrizko ordainsariak:

a) Oinarrizko soldata, mailari dagokiona.

b) Graduari dagokion ordainsaria.

c) Antzintasun saria.

B. Ordainsari osagarriak:

a) Berariazko osagarria.

b) Lanpostu-osagarria.

c) Aldi baterako osagarri pertsonala bigarren jardueran aritzeagatik.

C. Bestelako ordainsariak:

a) Zerbitzuan izandako gastuen kalte-ordaina.

b) Egindako bidaien kalte-ordaina.

c) Bizilekua aldatzea dakarren nahitaezko leku-aldatzeagatik ematen den kalte-ordaina.

d) Familia laguntza.

e) Aparteko orduen konpentsazioa.

f) Jaiegunetan lan egitearen konpentsazioa.

g) Gauaz lan egitearen konpentsazioa.

h) Langileak hautatzeko epaimahaietan parte hartzeagatik eta prestakuntza ikastaroak emateagatik ematen diren konpentsazioak.

i) Lehenagoko ordainsariak foru lege honetan adierazitakoa aplikatuz ateratzen dena baino handiagoak izateagatik ematen diren konpentsazioak.

2. Norberaren oinarrizko ordainsariak eta aurreko idatz-zatiko C letran adierazitakoak Nafarroako Administrazio Publikoen gainerako funtzionarioei oro har aplikatzekoak zaizkien arauen arabera banatuko dira, betiere foru lege honetan ezartzen diren berezitasunak kontuan hartuta”

Hamahiru bis. 51. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da, eta hauxe izanen da testu berria:

“2. Lanpostuko osagarriaren bidez zailtasuna, dedikazioa, erantzukizuna eta agindu beharra saritzen dira, bai eta eskatzen den prestakuntza tekniko berezia eta ohikoan polizia-zerbitzuak kalez jantzita egitea ere.

Polizia-zerbitzuak kalez jantzita eman ohi direnean, horregatik ordainsaria gehienez ere C mailako hasierako soldataren % 4 izanen da. Hori aplikatuko zaie urteko lanaldiaren % 50 baino gehiago kalez jantzitako zerbitzuetan egiten duten polizia kidegoetako unitate edo lanpostuei.

Lanpostuko osagarria izanen dute, orobat, kategoria baten barrenean aginte lan berezia egin behar duten lanpostuek, eta horrela jasoko da plantilla organikoan. Kontzeptu horri dagokion saria ezin izanen da mailako hasierako soldataren 100eko 10etik gorakoa izan.

Lanpostuko osagarriak ezin izanen du kasuan kasuko mailako hasierako soldataren 100eko 85 gainditu.”

Hamalau. Honela idatzita agertuko da 52. artikulua:

“52 artikulua. Egoitza.

1. Destinoko herria ez den beste batean bizitzek ez du poliziako funtzionarioa salbuesten lan lekura garaiz iristeaz eta lanaldia nahiz karguaren berezko funtzioak zorrotz betetzeaz, eta ez du ekarriko ordainik ematea lan lekurako joan-etorriengatik.

2. Behar bezala justifikaturiko kasu batzuetan, poliziaren alorreko eskumena duen administrazio-aginteak zilegi izanen dute poliziako funtzionarioei modu arrazoituan eskatzea destinoko herrian bizitzea, hala behar izanez gero lanpostuaren eginkizunengatik edo lanposturako eskaturiko dedikazioarengatik.”

zunengatik edo lanposturako eskaturiko dedikazioarengatik.”

Hamabost. Honela idatzita agertuko da 54. artikulua:

“54 artikulua. Esker onak, ohoreak eta sariak.

1. Nafarroako Polizia kidegoetako kideen esker onak, ohoreak eta sariak erregelamendu bidez arautuko dira. Nolanahi ere, sarietan zenbait suposamendu hartuko dira aintzat, eta gutxienez ere lau multzo egingen dira:

a) Zerbitzu egintzak, eredugarriak diren edo arrisku handia duten jarduerekin, ezgaitasun-lesioekin nahiz heriotzarekin.

b) Pairamena eragiten duten jarduerak, apartekoak eta balio handikoak; ebaketak edo zauri larriak, erabateko ezgaitasuna ekartzen ez dutenak.

c) Garrantzi bereziko zerbitzuak, dedikazio berezikoak edo premia duten pertsonen onura egitekoak, lanbidearen ezagutzarako lagungarri diren lan zientifikoak edo argitalpen teknikoak.

d) Nafarroako polizia kidegoen antzintasuna”

Hamasei. Honela idatzita agertuko da 56. artikulua:

“56 artikulua. Aplikatzekoa den araubidea.

1. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen ordezkari, negoziazio kolektiboari eta lan baldintzetan finkatzeko eztabaidetan parte hartuari dagokienez, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan ezarritako dagoenari segituko zaio.

2. Foruzaingoan negoziatorako mahai sektorial bat sortuko da, zeinak jardunen baitu Nafarroako administrazio publikoetako langileen estatutuan organo horietarako aurreikusitakoaren arabera.”

Hamazazpi. 58. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da, eta honela idatzita agertuko da:

“1. Diziplina hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke. Arau-hauste arinek hiru hilabeteren buruan preskribatuko dute, larriek bi urteren buruan eta oso larriek hiru urteren buruan.”

Hemezortzi. Honela idatzita agertuko da 59. artikulua:

“59 artikulua. Hutsegite arinak.

Hauek dira hutsegite arinak:

a) Puntualtasuneko hutsegiteak, behin eta berriz gertatutakoak aurreko hogeita hamar egunetan, justifikatutako arrazoirik gabe.

b) Hogeita hamar eguneko epean behin ez joatea lanera bidezko arrazoirik gabe, hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

c) Hiru hilabeteko epean behin ez egitea lanaldi osoa, bidezko arrazoirik gabe, hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

d) Herritarrekiko, agintariekiko, nagusiekiko eta lankide edo menpekoekiko harremanetan desegoki jokatzeari.

e) Zerbitzuko lokalak, instalazioak, ibilgailuak, materialak, dokumentazioa eta gainerako elementuak gaizki erabiltzea edo axolagabekeriaren zaintzea, eta arlo horretan xedaturiko arauak ez betezea, hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

f) Edozein eskaera edo erreklamazio erregulamenduzko bidetik aparte egitea, premiazko kasuetan ez bada, bai eta horiek ez izapidetzea ere.

g) Lanean dihardutela edari alkoholodunak edatea.

h) Lanerako baliabide informatiko eta materialak desegoki erabiltzea eta erabilerako ezarritako jarraibideak ez betetzea, hala nola sistema informatikoetan sartzeko pasa-hitzak gaizki erabiltzea.

i) Norberaren garbiketari edo itxurari dagokienez, utzikeriaren jokatzeari eta, orobat, uniformeari eta agurrari buruzko arauak ez betetzea.

j) Tresna edo baliabide ofizialak norberaren onerako erabiltzea edo horrelako erabilera baimentzea, edo horretarako bidea hirugarrenei erraztea, bidezko arrazoirik gabe eta nagusiari jakinarazi gabe.

k) Lanbide kredentzialak bidezko arrazoirik gabe erakustea.

l) Lanbide kredentzialak, arauzko arma edota polizia-eginkizunetarako erabiltzen den beste baliabideren bat galtzea edo lapurtua izatea, arreta faltagatik.

m) Betebeharretan edo jasotako aginduetan berandu iristea edo utzikeriaren jokatzeari.

n) Polizia-bulegoetan egiten den edozein jolas, zerbitzua ematea oztopatzen badu edo poliziaren irudiari kalte egiten badio.

ñ) Intsignia, domina edo bestelako bereizgarriak eramatea, horretarako baimenik gabe, hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

o) Doloz egindako faltagatik epai irmoaren bidez kondenatua izatea, ,eginiko arau-hauste penalak kalte egiten badie Administrazioari edo herritarrei.

p) Foru lege honen 4. artikuluan ezarritako printzipioen ondoriozko eginbeharrak ez betetzea, betiere hutsegitea larria edo oso larria ez bada, eta, orobat, polizia lanari dagozkion eginbehar eta betebeharretan berandu iristea edo zabarkeriaz edo utzikeriaren jokatzeari, hutsegitea larriagotzat jotzen ez bada.”

Hemeretzi. Honela idatzita agertuko da 60. artikulua:

“60 artikulua. Hutsegite larriak.

Hauek dira hutsegite larriak:

a) Puntualtasuneko hirugarren hutsegitea, hiru hilabeteko epean, bidezko arrazoirik gabe, aurreko biengatik hutsegite arinagatik zehapena ezarri denean eta hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

b) Lanera hiru aldiz ez joatea, hiru hilabeteko epean, bidezko arrazoirik gabe, aurreko biengatik hutsegite arinagatik zehapena ezarri denean eta hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

c) Hiru hilabeteko epean, gehienez ere lau aldiz ez egitea lanaldi osoa, bidezko arrazoirik gabe, hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

d) Herritarrekiko, agintariekiko, nagusiekiko, lankideekiko edo menpekoekiko errespetu falta, beren eginkizunetan dihardutela, edota Foruzaingoaren izen ona nabarmen galaraztea.

e) Zerbitzuetako bulegoetan, instalazioetan, ibilgailuetan, materialean, agirietan eta gainerako elementuetan kalte larriak eragitea, edota horiek galdu edo lapurtuak izan daitezten ahalbidetzea.

Polizia eginkizunek berezkoak dituzten baliabideak zerbitzuarekin zerikusirik ez duten erabileretarako baliatzea edota baliatzeko baimena ematea, horretarako arrazoirik ez badago.

f) Zerbitzuaren berezko arloetan nagusiek idatziz edo ahoz emandako aginduak ez betetzea, ordenamendu juridikoaren arau-hauste nabarmena ez badira.

g) Legeek abstenitzeko ezarritako arrazoiren bat gertatzen denean, prozedura administratiboren batean parte hartzea.

h) Lanean dihardutela iskanbilak edo liskarrak sortu edo horrelakoetan parte hartzea.

i) Beren kargua dela-eta ezagutzen dituzten gaietan lanbideko sekretuaren betebeharra ez betetzea edo informazioa isilpean ez edukitzea, polizia lanari edo hirugarrenei kalterik eragiten ez zaienean.

j) Kidegotik kanpoko pertsoneri edo komunikabideei eginiko adierazpen publikoak, zerbitzu-emaitea modu larrian kaltetu edo zerbitzuaren irudi ona kaltetzen dutenak.

k) Beren eskurantzaz gehiegikeriaz baliatzea, herritarren kaltetan, egitate hori hutsegite larriagoztat hartzen ez bada.

l) Zerbitzuari buruzko txostenak egitean edo erabakiak hartzean, argiro gezurrezkoak izan gabe ere, egiatik aldentzea, termino anbiguoak, nahasgarriak edo tendentziosoak erabilia, edo zehaztasun faltagatik egia desitxuratzea, horrek Administrazioari edo herritarrei kalte eragiten badie, ez bada delituztat edo hutsegite oso larritzat jotzen.

m) Nagusiei ez jakinaraztea haiek jakin behar duten edo lehenbailehen erabaki behar duten edozein kontu.

n) Arauzko armak zerbitzuko jardunean edo zerbitzutik kanpo erabiltzeko arauak hautsiz erabiltzea, gauzei edo pertsoneri kalte egin gabe.

ñ) Doloz egindako delituagatik epai irmoaren bidez kondenatua izatea, hutsegite oso larritzat ez bada jotzen, edota doloz egindako faltagatik epai irmoaren bidez kondenatua izatea, arau-hauste penalak zerbitzuarekin loturarik badu.

o) Zuhurtziagabekeriak eragindako delitu bat edo dolozko hutsegite penala egitea, polizia eginkizunetan ari dela, edo foru lege honen 4. artikuluan aurreikusitako jarduketa arau funtsezkoeragi eragiten badie.

p) Bakarka nahiz taldeka obediencia ukatzeko egintzak prestatzea.

q) Zerbitzutik kanpo mozkortzea edo droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psiko-tropikoak kontsumitzea, ohikoa denean edo poliziaren irudiari kalte egiten dionean. Mozkortzea eta aipatu substantziak kontsumitzea ohikotzat joko da, baldin eta urtebetean hiru aldiz gertatu dela egiaztatzen bada.

r) Droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psikotropikoak edukitzea, zerbitzuak berezkoak dituen jarduketan ondorioz ez bada.

s) Arrazoirik gabe, esleitutako zerbitzuan ez egotea edo bertatik alde egitea, lokartzea edo emandako zerbitzuak eskatzen duen arreta desbideratzen duen beste zerbaitetan aritzea.

t) Errendimendurik eza behin eta berriz eta arrazoirik gabe gertatzea, zerbitzuen eraginkortasunaren edo herritarren kaltetan bada, eta zerbitzurik ez ematea ustezko eritasuna izatearen aitzakian edo duen eritasuna baino larriagoaren

plantak egitea, edo sendatzea eragotzi edo luazten duten jardueretan aritzea.

u) Eginkizunekin bateraezinak diren jarduera publiko edo pribatuetan aritzea.

v) Identifikaziorako bereizgarriak edo arauzko arma galtzea edo lapurtua izatea, arreta falta bar-kaezinagatik.

x) Menpekoei galaraztea, mugatzea edo oztopatzea aitortuta dituzten eskubideez baliatzea, hutsegite oso larritzat ez bada jotzen.

y) Gertaera edo inguruabar larrietan lehenbailehen laguntzarik ez ematea, horretara beharturik egonez gero, delituztat ez bada jotzen.

z) Polizia lanari dagozkion eginbehar eta betebeharrak ez betetzea, utzikeria larriaz jokatzegatik, modu larrian eta nabarmenean gertatzen bada.

aa) Gainerako segurtasun indar eta kidegoetako kideekiko laguntza falta agerikoa, hutsegite oso larritzat jotzen ez bada.

ab) Alarma-, salbuespen- eta setio-egoeretan, edota, hala erabakitzen bada, herritarren segurtasuna larriki nahasten denean, destinoko bulegoan edota gertuenekoan berehala ez agertzea.

ac) Zerbitzuko eginkizunetan edo nahitaezkoa denean arauzko uniformeak, kategoria edo karguaren bereizgarriak, arauzko arma edo zehazten diren babes- edo ekintza-baliabideak ez eramatea, horretarako baimenik ez bada eman.

ad) Uniformez jantzita joatea edozein manifestazio edo bilkura publikotara, non eta ez den zerbitzuko eginkizuna edo uniformez joatea egokitzen den edo baimenduta dagoen ekitaldi ofiziala.

ae) Destino aldaketak eskatzea eta lortzea edozein ordainaren truke, irabazi asmoz edota aldaketa horiek arautzen dituzten baldintzak faltasuta.

af) Segurtasun indar eta kidegoek toki publikoetan bideokamerak erabiltzeari buruzko legerian ezarritakoaren urraketak, hutsegite oso larritzat jotzen ez badira.

aj) Lan arriskuen prebentziorako arauen urraketak, norberaren bizitza, osasuna edo integritate fisikoa, lankideena edo menpekoena arrisku larrian jartzen bada.

ak) Zerbitzuarekin zerikusia duen edozein eskabide, erreklamazio edo kexa izapidetzeari uko egitea behin eta berriz, hutsegite arintzat ez bada jotzen."

Hogei. Honela idatzita agertuko da 61. artikulua:

“61 artikulua. Hutsegite oso larriak.

Hutsegite oso larriak izanen dira:

a) Hiru hilabeteko epean lanera ez joatea hiru aldiz baino gehiagotan, justifikatutako arrazoirik gabe.

b) Hiru hilabeteko epean, lau aldiz baino gehiagotan ez egitea lanaldi osoa, bidezko arrazoirik gabe.

c) Puntualtasuneko laugarren hutsegitea, bidezko arrazoirik gabe, aurrekoengatik hutsegite larriagatik zehapena ezarri denean eta hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

d) Lanera lau aldiz ez joatea, bidezko arrazoirik gabe, aurrekoengatik hutsegite larriagatik zehapena ezarri denean eta hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

e) Zerbitzuarekin zerikusia duen doloeko delitu batengatik zigortuta egotea epai irmoaren bidez, askatasuna kentzeko zigorra, urtebetetik gorakoa, baldin badakar edota Administrazioari edo pertsoneri kalte larria eragiten badie.

f) Kargua dela-eta ezagutzen dituen aferetan, sekretu profesionala eta isilpea urratzea, poliziaren eginkizunei edo edonori kalte eragiten zaienean.

g) Entitateen edo partikularren eskupekoak eskatu edo onartzea, emaniko zerbitzuen esker onez edo oparitako.

h) Bakarka nahiz taldeka ez obeditzea.

i) Eginkizunetan ari dela, Nafarroako Foru Eraentzari zor zaion begirunea izatea eta Konstituzioari eta legeei men egin beharra ez betetzea.

j) Lanuzteetan, haien ordezkari ekintzetan edo hitzarturiko ekintzetan parte hartzea, zerbitzuen funtzionamendu egokia galarazteko helburuarekin.

k) Neutraltasun edo independentzia politikoa urratzea, esleituriko ahalmenak edonolako edo edonongo hauteskundeetan erabiliz.

l) Herritarrei, menpekoei edo Administrazioari kalte larria eragiten dien agintekeria, bai eta zainzapean dituen pertsonak gizalegez ez tratatzea, mesprexatuz, diskriminatuz edo laidotuz.

m) Mozkortzea edota droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psikotropikoak kontsumitzea zerbitzuan ari dela edo zerbitzua betetzea mozkortuta edo aipatu substantzien eraginpean; egoera fisiko edo psikiko ez-ohikoan egonik, uko

egitea bidezkoak diren egiaztapen teknikoak egiteari.

n) Arauzko armak zerbitzutik kanpo edo zerbitzuko egintzetatik kanpo erabiltzeari buruzko arauak hautsiz erakutsi edo erabiltzea, horren ondorioz gauzei edo pertsoneri kalte egiten bazaie edo alarma publikoa gertatu bada.

ñ) Zabarkeria larriaren ondorioz armak galtzea, istripuz nahiz lapurtuta.

o) Zerbitzua uztea, baldin eta ez badago ezinbesteko arrazoiaren bat, uzte hori nagusi bati jakinaraztea eragozten duena.

p) Sekretu ofizialak argitaratzea edo modu desegokian erabiltzea, sekretutzat jo badira alor horretako berariazko araudiari jarraikiz.

q) Sekretu profesionala urratzea, poliziaren eginkizunei, edozein herritarri edo nortasun juridikoa duten entitateei kalte eragiten zaienean.

r) Gainerako segurtasun indar eta kidegoetako kideekiko laguntza falta agerikoa, zerbitzuari kalte larria eragiten badio edo ondorio larriak badakar-tza herritarren segurtasunarentzat.

s) Arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo usteak, ezgaitasuna, adina edo sexu-joera, sexua, hizkuntza, iritzia, jatorria, bizilekua edo bere egoera pertsonal edo sozialaren ondoriozko beste edozein egoera dela-eta inolako bazterketa izan daitezkeen jarduketak.

t) Sexu-jazarpena eta lan-jazarpena. Azken hau da behin eta berriro jazarpen psikologikoko edo etsaigo-ekintzak egitea zerbitzu-harremanen esparruan.

u) Askatasun publikoak eta eskubide sindikalak erabiltzeko oztopo larriak jartzea.

v) Segurtasun indar eta kidegoek toki publikoetan bideokamerak erabiltzeari buruzko legerian ezarritakoaren urraketak, arau-hauste oso larritzat jotzen badira.

w) Edozein eginbehar profesional ez betetzea, zerbitzu publikoen funtzionamendu egokia nabarmen eragotziz gero edo Administrazioari edo herritarrei kalte larriak eraginez gero edo pertsona edo ondasunentzat edo segurtasun publikoarentzat arrisku nabarmena sorraraziz gero.”

Hogeita bat. (KENDUTA)

Hogeita bi. 63. artikuluko 4. idatz-zatia aldatu da. Honela agertuko da idatzita:

“4. Deuseztatzearen ondorioz, ohartarazpena baliogabetu egingen da, eta ez da haren ziurtagiririk egiterik izanen.”

Hogeita hiru. Honela idatzita agertuko da 65. artikulua:

“65. artikulua. Hutsegite larriak edo oso larriak ezartzeko prozedura.

1. Hutsegite larri edo oso larriengatiko diziplina-espeditentea irekitzeko eskumena duen organoak behin-behineko etenaldia edo beste lanpostu batera atxikitzea erabaki dezake, kautelazko neurri gisa. Behin-behineko neurriak hartzeko ebazpena eman baino lehen, interesdunari entzunaldia emanen zaio, hiru egun baliodunetz. Nolanahi ere, behar bezala arrazoitutako presa edo arrisku handiko kasuetan, buruak edo komisario nagusiak arma eta kredentziala kendu ahalko dizkiote funtzionarioari kautelazko neurri gisa, eta organo horrek hiru egun balioduneko epean, gehienez ere, berretsi beharko du erabaki hori.

2. Behin-behineko etenaldiak edo beste lanpostu bati behin-behineko atxikitzeak espeditaturik edo auzipeturik dagoen funtzionarioak arma, kredentziala eta uniformeak behin-behinekoz galtzea ekar dezake, bai eta bere kidegoko instalazioetara baimenik gabe sartzeko debekua ere. Kautelazko neurriak eutsi edo horiek bertan behera uzteari buruzko ebazpena ematerakoan egindakoen larritasuna baloratuko da, bai eta kasu bakoitzaren inguruabar zehatzak eta espeditaturiko funtzionarioaren espeditente pertsonala ere. Kautelazko neurriak ezarri edo luzatzea erabakitzen duen ebazpena arrazoitua izan beharko da.

3. Behin-behineko etenaldia erabakitzen bada, hilabetekoa izanen da, eta epe hori beste hilabetez luzatu ahalko da, sei hilabete egin arte gehienez.

4. Behin-behineko etenaldian dauden funtzionarioek eskubidea izanen dute, soilik, beren mailako hasierako soldadari, graduari, antzinatasuneko sariari eta familia laguntzari dagozkien lansariak. Behin-behineko etenaldiaren denbora kontuan hartuko da eginkizunen etenaldiaren zehapena betetzearen ondorioetarako, zehapen hori ezartzen bada. Behin-behineko etenaldia irmo bilakatzeko ez bada, funtzionarioari kendu zaizkion eskubide guztiak aitortuko zaizkio. .

Espeditaturiko funtzionarioa beste lanpostu bati behin-behineko atxikirik egon beharreko denbora ez da izanen diziplina-espeditentearen iraupena baino luzeagoa.

5. Hutsegite larri edo oso larriengatiko zehapen espeditentea hasi baino lehen, diziplina espeditentea irekitzeko eskumena duen organoak, gertaerak argitze aldera, aurretiazko informazioaldi bat irekitzeko agindu ahalko du, kasu zehatzaren zer-nola-

koak ikertu eta prozedura abiarazi behar den ala ez den erabakitzeko. Zilegi izanen da aurretiazko informazio hori erreserbatua izatea, eta ez da hila-bete batetik goiti luzatuko, non eta espresuki ez den erabakitzen beste epe jakin baterako edo batzuetarako luzatzea. Idatz-zati honetan aipatzen diren aurretiazko jarduketengatik ez da zehapen prozedura irekitzat hartuko.

6. Prozedura diziplina-espeditentea irekitzeko eskumena duen organoak hala ebatzirik irekiko da, ofizios edo salaketaren ondorioz gauzatutako jarduketez baliatuz. Diziplina-espeditentea hasten duen ebazpenak egintzetarako instruktorea izendatuko du eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio eta, salatzailerik izan bada, hari ere bai. Funtzionario edo lan-kontratadun bat izendatuko da instruktore, hautapen-prozeduran zuzenbideko lizentziatuaren titulua eskatu zaieneko bat hain zuzen. Ustez larriak diren hutsegiteen kasuan, goragoko lanpostua duen polizia kidegoko kide bat izendatu ahalko da horretarako.

Bai aurretiazko informazioan, bai diziplina prozeduran, funtzionarioak legelari baten laguntza eduki ahalko du.

7. Instruktoreak karguen plegu bat idatziko du, zehapen proposamena ere izanen duena, eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio. Hark hamar egun balioduneko epea izanen du bere eskubideen alde bidezko iruditzen zaizkion alegazioak egiteko eta datuak, informazioak edo dokumentuak aurkezteko, bai eta kasurako iruditzen zaion froga proposatzeko.

Karguen pleguan beti honako jakingaiak ezarriko dira:

a) Ustezko arau-hausleen identifikazioa.

b) Egitate egiaztatuak, nabarmendurik zein diren garrantzitsuak arau-hausteen tipifikazioari dagokionez eta zeintzuk duten garrantzia zehapenak mailakatzeko.

c) Ustezko arau-haustea, zehazturik zen den edo zein diren hautsitako araua edo arauak.

d) Zehapenik tokatzen bada, zein den, zenbatekoa den eta zein mailatakoa den.

e) Zein organok duen prozedura ebazteko eskumena eta zein arauk ematen dion eskumen hori.

8. Espeditatuak bere borondatez aitortzen badu erantzulea dela, instruktoreak organo eskudunari igorriko dio espeditentea, ebazpena eman dezan, ezertan galarazi gabe tramitatzen segitzea baldin eta iruzur zantzu arrazoizkorik badago edo beste pertsona edo entitate errudunen bat isilpean

geratu den susmoa baldin bada, edo prozedura hasteak sortu duen kontua ororen interesekoa baldin bada.

9. Ofizioz edo ustezko arau-hausleak eskatuta, behar adina froga egin edo onartuko dira, gertatutakoak eta erantzukizunak finkatzeko. Gertaerekin duten loturagatik azken ebazpena ustezko arau-hauslearen alde aldatu ezin duten frogak soilik ukatu ahalko dira.

10. Alegazioak aurkezteko aurreikusitako epea iraganik, frogarik egin behar bada frogak eginik, eta beharrezko irizten zaien eginbideak egin ondoren ere, instruktoreak karguen plegua jakinarazpenean bezala mantentzen badu, organo eskudunari igorriko dio espedientea, eta horrek gehienez hila-beteko epean eman beharko du kasuko ebazpena edo bestela instruktoreari aginduko dio beharrezko iruditzen zaizkion eginbide osagarriak egin ditzala.

Egindako alegazio eta frogen ondorioz gertaera berririk edo bestelakorik azaltzen bada, edo karguen pleguan aipatzen dena baino larriagoko kalifikazioa sortzen bada, instruktoreak karguen plegu berria eginen du bidezko den zehapenarekin eta interesdunari jakinaraziko dio, hark hamar egun balioduneko epean bidezko iruditzen zaion guztia alega dezan.

Aurreko lerroaldean agindu denetik kanpo uzten dira kasu horiek baldin eta gertaera berriak edo hutsegitearen nahiz zehapenaren kalifikazio berriak alegazioen edo espedientean interesdunak hala eskatuta egindako frogen ondoriozkoak badira, ezarri beharreko zehapena hasiera batean proposatutakoa baino larriagoa ez denean.

11. Organo eskudunak bidezkoa den ebazpena emanen du, ebazpen arrazoitua alegia. Ebazpenean espedientean planteaturiko gai guztiak ebartziko dira. Ez da zilegi izanen prozeduran barna egiaztatu direnez kanpoko gertaerarik onartzea ebazpenean, nahiz eta beste balorazio juridiko bat izan. Diziplina-prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean egindako frogen balorazioa jasoko da, bereziki erabakia oinarritzeko erabili direnena, eta bertan finkatuko da zein izan diren egitateak eta zein erantzulea edo erantzuleak, egindako hutsegiteak eta ezarritako zehapena edo zehapenak.

Ebazpena administrazio bidean irmo bihurtzen denean izanen da betearaztekoa.

Ebazpenean, kasua bada, behar diren kaute-lazko neurriak hartuko dira, ebazpenaren eraginkortasuna segurtatzeko ebazpena betearazi beharrekoa ez den artean.

12. Diziplina-prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izanen da, espedientea ireki-

tzeko ebazpena eman zen egunetik hasita. Epe hori gehienez ere beste sei hilabetez luzatu ahalko da, organo eskudunak emandako ebazpen arrazoituaren bidez. Epe horren ondorioetarako ez da inolaz ere kontuan hartuko diziplina-espedientea ustezko erantzuleari egotzi ahal zaion arrazoiengatik geldiarazirik dagoen denbora.”

Idatz-zati berria. Xedapen gehigarri berri bat, zazpigarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Zazpigarren xedapen gehigarria. Behin-behineko izendapenen balorazioa lanpostuak eskuratzearen ondorioetarako.

Berez duten lanpostua baino goragoko lanpostuetan aldi batez aritu diren Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioei, baldin eta aldi baterako izendatuak izan ziren lanposturako hautapen-prozesuak gainditzen badituzte, behin-behinekoz egin dituzten aldiak enplegua jabetzan izan balute bezala kontatuko zaizkie, betiere soilik betetakoaz gorako lanpostuetako hautapen-prozesuetara sartu ahal izateko eraginetarako.”

Idatz-zati berria. Xedapen gehigarri berri bat, zortzigarrena, gehitu da. Hona testua:

“Zortzigarren xedapen gehigarria. Sartu eta mailaz igotzeko prozesuak.

Nafarroako polizia kidego desberdinetara sartzeko prozeduretan, prestakuntza ikastaroren baterako onartua izateko legezko baldintzetan dagoen izangairen bati ikastaro hori konbalidatutzat ematen baldin bazaio, lanpostu bera Nafarroako beste administrazio publikoren batean betetzeagatik, azken administrazio horrek eskatu ahalko du ezen, behin kidego edo administrazioa hautatu ondoren, hutsik gelditzen den hurrengo lanpostua eskaini dakiola zerrendako hurrengoari; azken hori, izan ere, ikastaroa konbalidatu zaion izangaiak hasiera batean hautatu duen administrazioko praktikatako funtzionario gisa onartuko da prestakuntza ikastaroan.

Behin prestakuntza ikastaroa bukatu ondoren eta ikastaroa konbalidatu zaion izangaiak hautaturiko polizia kidegoan sartu ondoren, jabetza hartzeak berekin ekarriko du une horretara arte edukitako lanpostuari berriaz uko egitea, eta interesduna lanpostua gorde gabeko borondatezko eszedentziaren egoeran geratuko da. Kasu horretan, hutsik geratu den lanpostua betetzen zegoeneko administrazioak, aipatutakoaren ordezkarako prestakuntza ikastaroan sarturiko izangaia izendatuko du.

Nafarroako polizia kidegoen arteko promozio prozeduren kasuan, deia egiten duen administra-

zioan sartzeak berekin ekarri du ordura arte bete izandako lanpostuari uko egitea.”

Idatz-zati berria. Beste xedapen gehigarri bat, bederatzigarrena, gehitu da. Testu hau izanen du:

“Bederatzigarren xedapen gehigarria. Lanaldi-eta egutegi-araubideak zerbitzuaren beharren ondorioz aldatzea.

1. Lanaldien eta egutegien araubidearentzako kalterik gabe, kontuan hartuz polizia-zerbitzua dela zerbitzu publiko bat modu iraunkorren, batabatean eta aitzakiarik gabe eman beharrekoa, Nafarroako polizia kidegoetako burutzek, zerbitzuaren beharrak direla-eta, edozein unetan aldatu ahalko dituzte lanaldi- eta egutegi-araubideak; kasu horietan, behar diren denbora-ordain baliokideak emanen dira edo, kasuan kasuko lanaldi orokorraren urteko zenbatekoa gainditzen denean, aparteko orduak ordainduko dira.

2. Lanaldia egun-kopurutan neurtzen den araubideetan, lanaldi bakoitzak gehienez ere 10 lanordu benetako irauten duela joko da, eta ordu horien barruan sartuko dira bai benetan lanean aritutako denbora bai eta zerbitzua emateko prest amandako denbora ere. Soilik ordainduko dira aparteko orduak baldin eta urteko lanaldia aplikatuta ateratzen den lanegun kopurua gainditzen bada.”

Hogeita lau. Bigarren xedapen iragankorra, Nafarroako Foruzaingoaren Kontseiluaren eraketa, kendu da.

Hogeita bost. (KENDUTA)

Lehen xedapen iragankor berria. Nafarroako Polizien Kontseilua eratzea.

Nafarroako Polizien Kontseilua foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean eratuko da.

Bigarren xedapen iragankorra. Nafarroako Herritarren Segurtasunerako Plan Orokorra.

Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabete epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Herritarren Segurtasunerako Plan Orokorra aurkeztuko dio Nafarroako Parlamentuari, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, atek itxita egin beharreko saioan, ezagut dezan.

Hirugarren xedapen iragankor berria. Toki entitateetako segurtasun publikoa.

Tokiko poliziaren kidegorik izan ez, 3.000 biztanle edo gehiago eduki, udaltzainak ere eduki eta, foru lege honek indarra hartzen duenetik bost urteko epean tokiko poliziako kidego bat sortzea aurreikusita duten toki entitateei baimena eman ahalko die Nafarroako Gobernuak tokiko poliziako

laguntzaileak aldi baterako kontratatze, hain zuzen ere foru lege honetan aurreikusitako eginkizunak betetzeko tokiko poliziako kidego hori sortu bitartean.

Polizia kidegoa sortzeko prozedura aipatutako epean bukatzen ez bada, izenpetutako kontratu administratiboak amaiarazi beharko dira.

Xedapen honen arabera eginiko kontratazioak foru legeko 19. artikuluan ezarritako baldintzak betez egin beharko dira.

Laugarren xedapen iragankor berria. Gehienezko adinaren baldintza.

Foru lege honek indarra hartu eta lehenengo bi urteetan, 30.1.b) artikuluan aurreikusitako sarrera-probetara onartzeko baldintza 35 urtekoa izanen da, eta lege-testuak indarra duen bi urtez behin urtebete jaitsiko da adin hori, harik eta artikuluetan finkatutako 30 urteko adinera heldu arte.

Bosgarren xedapen iragankor berria. Titulazioari dagokion salbuespena.

Foru lege honek indarrean sartu eta ondoko bi urteetan Nafarroako poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeko 30.1.c) eta 31.1 artikuluetako jatorrizko testuan aurreikusitako salbuespena, titulazioari dagokiona, mantenduko da.

Xedapen indargabetzaile berria. Indargabetez diren arauak.

Indarrak gabe geratuko dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehena. Bigarren jarduerari buruzko erregelamendua.

Foru Lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, bigarren jarduera arautzeko erregelamendua bat onetsiko da.

Hogeita zortzi. (KENDUTA).

Azken xedapenetan bigarrena. Ordainsariei buruzko erregelamendua.

Foru lege hau onetsi eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak ordainsariei buruzko erregelamendua bat onetsiko du, Nafarroako Foruzaingoaren kidegoko ordainsarrietan egun dauden aldeak gutxitzeko, baina horrek ez du, zenbaketa orokorrean, langileria gastuak handitzea ekarriko.

Azken xedapenetan hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Jagoletza Partekatuari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 4an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Jagoletza Partekatuari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2010eko azaroaren 10eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena

2010eko ekainaren 8ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Noain-Iruña Aireportuko instalazioetako errotuluak euskaraz eta gaztelaniaz jar ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Noain-Iruña Aireportuko instalazioetako errotuluak euskaraz eta gaztelaniaz jar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Honen bidez, Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du euskaraz eta gaztelaniaz jar ditzan Iruña-Noaingo aireportuko instalazioetako errotuluak.

Iruña-Noaingo aireportuak azaroan inauguratu du bidaiarien terminal berria, eta Espainiako Gobernuak Sustapen Ministerioa, horrez gain, kontrol-dorre berria eraikitzeke obra egiten ari da.

Terminal berri horrek zerbitzu hobea emanen die, inondik ere, aireportuaren erabiltzaileei eta, azken batean, nafar guztiei. Gure ustez, aireportuaren errotulazioan Nafarroako bi hizkuntzak ageri behar dira, eta, horrenbestez, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du euskaraz eta gaztelaniaz jar ditzan Iruña-Noaingo aireportuko instalazioetako errotuluak.

Iruñean, 2010eko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoko Oroimenaren Unitatea deszentraliza dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoko Oroimenaren Unitatea deszentraliza dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

Legebiltzar honetako Osasun Batzordeak San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoko Oroimenaren Unitatera egindako bisitan azaldu zigutenez, unitatearen sorrerako helburu nagusia izan zen zerbitzu ambulatorio goiztiarra, osoa eta espezializatua ematea narriadura kognitibo arina (NKA) eta demenzia –hastapeneko aldian– duten gaixoei, arreta jarrita ebaluazioan eta errehabilita-

zio neuropsikologikoan. Hona unitatearen helburu berariazkoak:

1.- NKA eta demenzia –hastapeneko aldian– duten gaixoentzako psikoestimulazio kognitiboko errehabilitazio-tratamendua garatzea.

2.- Ebaluazio neuropsikologiko osoa eta berarizkoak egitea.

3.- Tratamenduen eragingarritasunaren jarraipena egitea.

4.- Neurologiako zerbitzuarekin lankidetzan aritzea diagnosia, diagnosi bereizgarria eta tratamendu goiztiarra egitean.

5.- Familia-laguntzako plan jarraitua eskaintzea.

6.- Erreferentziako zentro bihurtzea.

Nafarroan mila alzheimer kasu inguru diagnostikatu dira. Alzheimerra sendaezina da, baina geldotu daiteke, farmakoen ordez psikoestimulaziorako saioak baliatzen dituzten tratamenduen bidez, eta hori da Oroimenaren Unitateak egiten duena.

Kontuan hartuta tratamendu ez farmakologikoak –esate baterako, psikoestimulazioa– narriadura kognitiboa geldotzeko eragingarriak direla kontzientziaren narriaduraren hastapeneko faseetan, eta Nafarroako biztanle guztiei zerbitzu hori jaso ahal izateko ekitatea eta berdintasuna ziurtatze eta errazte aldera, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du Oroimenaren Unitatea deszentraliza dezan, tailer sateliteak sortuz.

Iruñean, 2010eko irailaren 28an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da bere gain har ditzan guztiz Petö Metodoaren bidezko tratamenduen kostuak.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita bere gain har ditzan guztiz Petö Metodoaren bidezko tratamenduen kostuak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

Nafarroako Gobernuak dirulaguntza ematen die, 2001etik hona, garuneko perlesia eta antzeko gaixotasunak dituzten hamasei urtetik beheitiko haur nafarrei, Petö metodoaren bidezko tratamen-

dua jaso dezaten. Osasun Batzordearen lan bilera batean agerraldia egitean Petö Familien Batzordeak informatu zuenez, urte horretan (2001) hasi ziren dirulaguntzak ematen baliabide ekonomiko gutxiko hamasei urtetik beheitiko nafar adingaberen familiei. Osasunbideko espezialista batek tratamendua agindu dien guztiei dirulaguntza emateko konpromisoa, berriz, 2004an hartu zen.

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzei esker, hogeita bost nafarrek baliatu ahal izan dute errehabilitazio-tratamendu hori urte hauetan guztietan. Kasurik gehienetan, laguntza horiek gabe ezinezkoa izanen litzateke tratamendu hori egitea.

Osasun Laguntza doakoa eta unibertsala da, eta Petö metodoa errehabilitazio-tratamendu bat da, ia bakarra fisioterapiarekin batera, besteak beste garuneko perlesiak eta antzeko gaixotasunek eragindako mugimen-desordena kronikoaren tratamendurako. Hori dena kontuan hartuta, eta batez ere tratamendu hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko espezialista batek agintzen duelako, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du osorik har ditzan bere gain Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko espezialistek bideratutako Petö metodoaren bidezko tratamenduen kostuak.

Iruñean, 2010eko irailaren 28an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Estellerriko eremu ureztagarri berriari buruzko proiektuaren gaineko kontsulta egin dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Estellerriko eremu ureztagarri berriari buruzko proiektuaren gaineko kontsulta egin dezan

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Estellerriko eremu ureztagarri berriari buruzko proiektua gai polemikoa izan da legegintzaldi hau (2007-2011) hasi zenez geroztik, eta oraindik ere ez dago argi zertan bukatuko den. Estellerriko eremu ureztagarri berriaren proiektuak era guztietako iritzia jaso ditu, hala eragile politikoen nola ukitutako nekazarien aldetik. Proiektua Nafarroa 2012 Planean dago sartuta, Nafarroako Parlamentuak 2008ko maiatzaren 23an plana onetsi zuenetik. Gogorazi beharra dago Nafarroa 2012 Planaren arabera proiektuaren aurrekontua 85 milioi eurokoa izanen zela.

Une honetan, 134,5 milioi euro beharko lirateke Estellerriko eremu ureztagarri berria egiteko, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari emakida eskatzeko jendaurreko prozesuan aurkeztutako aurrekontuetan ikus daitekeenaren arabera; alegia, proiektu berria nabarmen garestitutako litzateke, Nafarroako Gobernuak eman zuen lehen zen-

batekoaren aldean (lehenago adierazi dugunez, Nafarroa 2012 Planean sartu zen proiektua).

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuan behin baino gehiagotan gogorazi du proiektu hori eskaera historiko bat dela; halaxe egin zuen orobat 2008an jaso genuen gonbitean, zein角度an foru parlamentari garen aldetik dei egiten baitzitzaigun Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko ekitaldi-aretoan abenduaren 9an egitekoa zen bilerara.

Gogorazi beharra dago 2000ko eskaera historikoak ez duela zerikusirik nekazaritzak Nafarroan egun bizi duen errealitate kritikorekin eta, bereziki, Estellerrikoarekin, eremu ureztagarri berria han egin nahi baita. Horri gehitu beharko litzaioke orain dela ia bi urtetik hona bizi dugun krisi ekonomikoak eragindako gaurko egoera.

Nafarroa Baik eskatuta 2009ko martxoaren 5ean egindako agerraldian, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari Begoña Sanzberrok adierazi zuen 2010eko lehen seihilekoan iritzia eskatuko zitzaiela Estellerriko eremu ureztagarri berria sortzeko proiektuak ukitutako jabe guztiei. Agerraldi hartan, kontseilariak esan zuen eremua modu zehatzago batean egonen zela identifikaturik 2010ean, jabe bakoitza lurzati lurzati egonen zela identifikaturik, eta ukitutako nekazariak orduan izanen zutela aukera informazioa jasotzeko eta zer egin nahi zuten erabakitzeko.

Halatan, 2009ko irailaren 21ean, Nafarroa Baik galdera bat egin zion Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, jakiteko ea zer formula erabiliko zuten ukitutako jabeek galdetzeko, eta Nafarroako Gobernuak zer egun zerabilen gogoan horretarako. Hona 2009ko urriaren 21ean jasotako erantzuna: "Gure ustez litekeena da 1/2002 Foru Legeko 43. artikuluan aurreikusitako kontsulta 2010. urtearen bukaeran edo 2011ko lehen hiletan egitea".

Ararteko Francisco Javier Enériz jaunak, berriz, Nafarroako Gobernuari ebazpen batean gomendatzen dio egokien irizitako formula balia dezan Estellerriko eremu ureztagarri berriak ukitutako jabeek oro har duten iritzia eta jarrera ziurtasunez ezagutzeko.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak 2010eko maiatzaren 12an adierazi zuen

Estellerriko eremu ureztagarriaren proiektua ez zela eginen baldin eta jabeek nahi ez bazuten, eta proiektua onetsi aurretik banan-banan galdetuko zitzaie jabe guztiei.

Aurtengo ekainaren 15ean, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak berriz ere egin zuen agerraldia, Nafarroa Baik eskatuta, Nafarroako Parlamentuan, baina agerraldi horretan ere ez zitzaigun zehaztu zein egunetan eginen zaien kontsulta ukitutako jabeek. Nafarroa Baik eskatuta, Ureztatzearen aurkako Jabeen Estellerriko Elkar-teko ordezkariak agerraldia egin zuten irailaren 10ean Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordearen lan bilera batean, Estellerriko eremu ureztagarri berriari buruz duten jarrera azaltzeko. Agerraldi hartan, elkarteko kideek euren jarrera azaldu zuten, eta Nafarroako Gobernuari eskatu zioten lehenbaile-

hen egin dezan kontsulta eta kontsultatik ateratzen den emaitzari men egin diezaion.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa Baik uste du kontsulta hori lehenbailehen egin behar dela eta ezin dela 2011ko bigarren seihilekora arte itxoin, areago kontuan hartzen badugu orduan hauteskunde prozesu batean murgilduta egonen garela denok. Gure ustez, kontsultak ezin du bat egin udal eta foru hauteskundeekin, eta, horrenbestez, talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Estellerriko eremu ureztagarri berriari buruzko proiektuaren gaineko kontsulta 2011ko otsailaren 15a baino lehen egin dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 28an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da Santa Crizko proiektu arkeologikoaren jarraitasuna ziurta dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita Santa Crizko proiektu arkeologikoaren jarraitasuna ziurta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádaba, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eleduna-

ren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatu eta onets dadin. Honen bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da Santa Crizko (Eslaba) proiektu arkeologikoaren jarraitasuna ziurta dezan.

Iragan irailaren 28an, PSN-PSOeren ekimezez, Kultura eta Turismo Batzordeak aukera izan zuen Santa Crizko proiektu arkeologikoa bisitatze-ko eta lan bilera bat egiteko udal nahiz foru administrazioetako arduradunekin eta Cedernako eta "Tierras de Javier" elkarteko ordezkariekin.

Bisita egin eta gero –parte-hartzaile guztien ustez, egokia bezain emankorra izan zen–, argi eta garbi gelditu zen:

– Aztarnategiak berebiziko garrantzia duela kulturaren ikuspuntutik.

– Plan Zuzendari bat dagoela 2007tik hona, Kultura eta Turismo Departamentuak berak finantzatuta.

– Eslabako udal administrazioaren inplikazioa egin diren ekintzen garapenean.

– “Tierras de Javier” elkarte berriaren plan estrategikoan garrantzi handia ematen zaiola aztarnategia balioan jartzeari, eskualdeko garapen turistikoan funtsezko osagaia den aldetik.

– Oibar ibarreko gune historikoa bezalako eskualde deprimitu batean leheneratze kultural, sozial eta ekonomikoko ekintzak abiarazteko beharra.

– Bertaratutako talde guztien konpromiso irmoa aztarnategia balioan jartzearekin.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarraitasun eraginkorra eman diezaion Santa Crizko indusketa arkeologikoaren

proiektuari, zeina Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Akordioan baitago sartuta.

2. Proiektu horrek, Plan Zuzendarian ezarritakoarekin bat, bereziki jarri beharko du azpimarra aztarnategia dibulgatzeko prozesuan, eskualde horretako garapen sozioekonomikoan mugarri bihurtu dadin.

3. Hartara, beste administrazio batzuen laguntza lortze aldera foru gobernuak egin ditzakeen ekintzak ezertan ere galarazi gabe, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2011ko eta hurrengo urteetako aurrekontuetan sar ditzan aztarnategiaren plan zuzendarian jasotzen diren aurreikuspenak betetzeko behar diren kontusailak.

Iruñean, 2010eko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Legebiltzarrean foru lege proiektu bat aurkez dezan Nafarroako Langile Publikoaren Estatutua arautzeko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Legebiltzarrean foru lege proiektu bat aurkez dezan Nafarroako Langile Publikoaren Estatutua arautzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Honen bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Langile Publikoaren Estatutua arautzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan, zeinaren arabera estatutua Boloniako prozesutik heldu diren titulazio berriei egokituko baitzaie.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak behin eta berriz azpimarratu du beharrezkoa dela foru gobernuak Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua aldatzeko proiektu bat aurkeztea. Arau berrien nahiz negoziazio kolektiboaren ondorioz gaudituta eta zaharkituta gelditu den testu bat iza-teak arazo ugari eragiten ditu.

Azkena da Estatutuak, lanpostuan aritzeko exijitzen diren ikasketen arabera, mailatan sailkatzen dituela langileak: A, B, C, D eta E.

Argi dago Bolonia Planeko sistema berria ezartzearen ondorioz disfuntzioak gertatuko direla baldin eta gure araudia aldatzen ez bada.

Espainiako Gobernuak egin du egin beharreko aldaketa hori, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legea onetsi baitzuen.

Nafarroako Foru Komunitateak langileen arloan duen eskumenarekin bat etorritik, eta ez dagoenez inolako arrazoirik gure foru araudia Administrazioak behar dituen aldaketei ez egokitzeko, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du abenduaren 1a baino lehen eta eduki beharreko elkarrizketak eduki ondoren aurkez dezan Legebiltzarrean Nafarroako Langile Publikoaren Estatutua arautzeko foru lege proiektu bat, zeinaren bitartez estatutua Boloniako prozesutik heldu diren titulazio berriei egokituko baitzaie.

Iruñean, 2010eko abuztuaren 6an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

F saila:
GALDERAK

Galdera, azterketa medikoak espezialistek ezarritako epeak betez egin daitezen hartu beharreko neurriei buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, azterketa medikoak espezialistek ezarritako epeak betez egin daitezen hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasun kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko ditu zure Departamentuak, azterketa medikoak espezialistek ezarritako epeak betez egin daitezen?

Iruñean, 2010eko irailaren 29an.

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, "Musikaren Plan Zuzendaria. Nafarroako taldeek Nafarroako kultur etxeetan duten presentzia" kontusailari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, "Musikaren Plan Zuzendaria. Nafarroako taldeek Nafarroako kultur etxeetan duten presentzia" kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako ahozko galdera hau egiten du, "Musikaren Plan Zuzendaria. Nafarroako taldeek Nafarroako kultur etxeetan duten presentzia" izeneko kontusailaren garapenari buruzkoa, Batzordean erantzun dadin:

PSN-PSOEek, Nafarroako Gobernuarekin 2010eko aurrekontuetarako lortutako akordioaren ondorioz, zuzenketa bat sartu zuen aurrekontu horretan, "Musikaren Plan Zuzendaria. Nafarroako taldeek Nafarroako kultur etxeetan duten presentzia" xederako 100.000 euro bideratzeko.

2010eko laugarren hiruilekoaren hasieran gaudenez eta programaren garapena zertan den jakiteko, hona galderaren testua:

- Zer kultur etxe hautatu dira? Zer irizpide baliatu dira horretarako? Zer konpromiso hartzen dituzte programari atxikitzen zaizkion kultur etxe horiek? Zer garapen izan du programak eta zer balorazio egiten da kontseilariaren agerraldiaren egunera bitarte? Programaren zer ehuneko bete da gaur arte?

Iruñean, 2010eko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiaren kostuei buruzkoa.**ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiaren kostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatu-

aren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko.

Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdia udako kultur programa garrantzitsua da, Nafarroako 2010eko aurrekontuetan 750.000 euroko zuzkidura baitu. Zenbateko horri gehitu behar zaio Espainiako Gobernuak Kultura Ministerioak aurten jarritako 170.000 euro.

Jaialdiak kudeatutako funtsen eta ekintza bakoitzari esleitutako zenbatekoen berri zehatza izate aldera, ondokoa jakin nahi dut:

- Jaialdiaren atal bakoitzaren kostu ahalik eta zehaztuena: kaxetak, langile-gastuak, intendentzia, publizitatea, eta abar. Hori guztia, Nafarroako aurrekontuetan nahiz Espainiakoetan aurreikusitako zenbatekoei dagokienez.

- Asteburuko ikuskizun bakoitzera ordainduta sartutako ikusleen kopurua eta horrela bildutako diru-zenbatekoak.

Iruñean, 2010eko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

5/2010 Legegintzako Foru Dekretua, irailaren 20koa, tributu harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 5/2010 Legegintzako Foru Dekretua, irailaren 20koa, tributu harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 160. artikulua, hona erabakia:

1. 5/2010 Legegintzako Foru Dekretua, irailaren 20koa, tributu harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eza gutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

5/2010 Legegintzako Foru Dekretua, irailaren 20koa, tributu harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

ZIOEN AZALPENA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikulua balio erantsiaren gaineko zergaren ordainarazpena aplikatzeko araudiari buruzkoa da. Horretarako, ezarri egiten da Foru Komunitateak Estatuko lurraldean uneoro indarra duten oinarritzko printzi-

pio berak eta arau substantibo eta formal berberak aplikatuko dituela. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitortpena eta ordainketak egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu, gutxienez ere lurralde komuneko datu berekin; likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak ere finkatzen ahalko ditu, baina funtsean ez dira Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik desberdinak izanen.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak 54.1 artikuluan xedatzen du ezen Hitzarmen Ekonomikoarekin bat, tributu araubide komunen aldaketa batek behartzen badu estatuan unean-unean indarra duten arau substantibo eta formal berak Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak, arauetarako duen ahalaren esparruan, Nafarroako Parlamentuak haren esku utzia baitu, behar diren foru legeen mailako arauak ematen ahalko dituela tributu arloko foru legeak aldatzeko.

Aipatutako 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, legegintza delegatu hori osatzen duten Nafarroako Gobernuaren xedapenek tributu harmonizazioaren gaineko legegintzako foru dekretuen titulua hartuko dute.

Langile autonomoak jarduera uztean babesteko sistema berariazkoa ezartzen duen abuztuaren 5eko 32/2010 Legeak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu du eta, horregatik, beharrezkoa da, aipatutako legegintza delegatua erabiliz, tributu harmonizazioaren gaineko legegintzako foru dekretu baten bidez eta 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikulua horri jarraituz, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea; hain zuzen ere, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuaren lurraldean indarra duten arau substantibo eta formal berak aplikatu behar dituen alderdi zehatze-

tan, Estatuarekin sinatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Mendekotasunari lotutako zenbait zerbitzuri, hala nola telelaguntzari, etxez etxeko laguntzari, gaueko eta eguneko zentroei eta egoitzako laguntzari, dagokien 100eko 4ko tasa murriztua aplikatuko da, halaber, zerbitzuok haiei lotutako prestazio ekonomikoaren ondorioz ematen direnean, betiere prestazio horrek prezioaren 100eko 75etik gora estaltzen badu.

Arau honek eta Estatuan duen arau baliokideak, biek ala biek, 2010eko azaroaren 6an hartuko dute indarra.

Horren ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 37.Bi.2.3 artikulua aldatu eta honela gelditu da:

“3. Telelaguntzaren zerbitzua, etxez etxeko laguntzarena, gaueko eta eguneko zentroena eta egoitzako laguntzarena, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 15. artikuluko 1. idatz-zatiko b), c), d) eta e) letretan aipatzen direnak; betiere, zentro edo egoitzetako plaza itunduetan ematen badira, edo enpresei esleitutako lehiaketa administratibo baten ondoriozko prezioekin, edota zerbitzu horiei lotutako prestazio ekonomikoaren ondorioz –baldin eta prestazio horrek prezioaren 100eko 75etik gora estaltzen badu–, aipatutako legean xedatutakoa aplikatuta.

2.3 zenbakian xedatutakoa ez zaie aplikatuko foru lege honen 17.1.17 artikulua aplikatuta salbuesten diren zerbitzuei.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek 2010eko azaroaren 6an hartuko du indarra.